

IDENTITATEA ERAIKITZEA INDARKERIA ABIAPUNTUTZAT HARTUTA: JOAQUÍN MURRIETAREN KORRIDOA

Sonia Barrios Tinoco

Seattle University

barrioss@seattleu.edu

Aipatzeko gomendioa || BARRIOS TINOCO, Sonia (2012): "Identitatea eraikitzea indarkeria abiapuntutzat hartuta: Joaquín Murrietaren korridoa" [artikulua linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 6, 75-91, [Kontsulta data: dd/mm/aa], <http://www.452f.com/pdf/numero06/06_452f-mono-sonia-barrios-tinoco-eu.pdf>

Ilustrazioa || Gabriella d'Alessandro

Itzulpena || Nagore Pérez

Artikulua || Jasota: 09/08/2011 | Komite zientifikoak onartuta: 20/09/2011 | Argitaratuta: 01/2012

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || *Corrido de Joaquín Murrietari* buruzko ikerlanetik abiatuta, artikulu honek agerian utzi nahi ditu fikzio identitario eta ondasun sinbolikodunak sortzeko erabiltzen diren mekanismoak (Bourdieu). Gure kasuan, horien jatorria nazio batek beste bati eragiten dizkion indarkeriaren eta inposaketaren aurkako erresistentzia-mugimendu bat da. Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko gatazka dela medio (1846-1848) sortu zen Joaquín Murrietaren kondaira eta, mexikarrek heroizat jotzen duten bitartean, estatubatuarrek bidelapur bat dela uste dute. Ikusiko dugu, batetik, nola uztartu zuten pertsonaia horren istorioa zenbait kultura produktuekin eta, bestetik, nola bihurtu zuten heroi justiziazale moduko bat, eta baita imaginario nazionalean irudi bera izaten jarraitzen duela ere. Gainera, heroi justiziazale zorrotz hori mexikarren ordezkariatzat edukitzeaz gain, hainbat talde gutxitu eta zapalduen ordezkariatzat jotzen dute.

Hitz gakoak || indarkeria | fikzio identitarioak | korridoa | Joaquín Murrieta | kultura-produktuak

Abstract || Through the analysis of the *Corrido de Joaquín Murrieta*, this article studies the mechanisms through which identity fictions and symbolic capital (Bourdieu) are created. In this case the elements mentioned above have its origins in a resistance movement that reacts to the violence and imposition exercised by one nation upon another. The legend of Joaquín Murrieta was born after the conflict between Mexico and The United States (1846-1848). He is a hero for the Mexicans and a bandit for the latter. In this study we will trace the story of the character in its different variations in diverse cultural products and analyze how he became a hero avenger and is part of the national imaginary as a representative not only of the Mexicans but also of other minority and oppressed groups.

Keywords || violence | identity fictions | corrido | Joaquín Murrieta | cultural products.

*The corridos tell the tales
of life and death,
of tradition,
legends old and new, of joy,
of passion and sorrow
of the people—who I am.*
Rodolfo «Corky» Gonzales,
Yo soy Joaquín / I am Joaquín

OHARRAK

1 | Joaquín Murrietari buruzko datu historikoak berrikusiz gero, ikus daiteke zenbait ikerketak ezbaian jartzen dituela heriotzaren inguruko gertaerak (Love kapitainak hil ei zuen) eta istorioari buruz kontaktzen den guztia. Zaila da informazio historikoaren eta jendearen irudipenen artean mugak ezartzea, eta, horrexegatik, ustezko heriotzari buruz ari gara, kontrako bertsioak baitaude.

0. Sarrera

Herririk herri eta belaunaldirik belaunaldi, sinboloek, mitoek eta elezaharrek zenbait pertsonaiaren bizitza eta gertaerak kontaktzen dituzten horien memoriak eta mintzoak sortu eta betikitzen dituzte. Istorio xume horien bidaia zenbaiten ahotan hasi eta beste batzuen irudimenean bukatu ohi da eta, hartzaileek, aldi berean, istorioek txundituta, birkontaktzeari ekiten diote. Modu horretan, prozesua milaka aldiz abiatzen da, kondairak tokirik baztertuenetaraino iritsi arte, bertan erromesaldia jarraitzeko. Bizitza istorioak eta egitandiak errepikatu, sortu eta birsortu egiten dituzte batzuek eta, hain zuzen, horiengan irauten dute istorioek; izan ere, haien nahietara, eta une eta leku bakoitzean dagoen jendearen eskakizunetara, egokitzen dituzte heroi handien, arerioen, boteretsuen eta beste pertsonaia batzuen ezaugarriak.

Horrelaxe sortu zen eta horrelaxe bidaiatzen du Joaquín Murrietaren izenak eta, ikuspuntuaren arabera, heroiaren sinonimo edo herriko bidelapur aurremodernoen sinonimo izan daiteke. Meatzaria lanbidez, Sonoran jaio zen, Mexikon, 1829 inguruan, eta ustezko heriotza 1853an erregistratu zuten¹. Pertsona/pertsonaia honen bidaldia bere estatuan hasi zen, ipar-mendebaldeko Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko mugan, eta Kaliforniaraino joan zen XIX. mendearen 50eko hamarkadaren hasieran, urrearen sukarraren fenomenoarekin batera, hain justu.

Murrietaren irudia sortu eta sendotu egin zen mugakide diren bi nazioen arteko gatazka armatuaren eraginez eta, hortaz, kultur kodeen arteko talka gertatu zen. Mexikoren eta Estatu Batuen arteko gerraren ostean (1846-1848), estatubatuar eremu berrietan bizi ziren mexikarrak herritartasunaz eta eskubideez gabetu zituzten. Murrietaren istorioa, beraz, nazio baten aldaketak eta urrearen sukarrak eragin zuten kaosaren erdi-erdian jazo zen. Haren ospea, ordutik, kultura-produktu kontaezinetan islatu dute. Besteak beste, antzerki-lan, korrido, eleberri, poema, pelikula edota telesail askoren pertsonaia nagusia da. Mexikarrek Murrietaren irudiarekin identifikatzen zuten euren burua eta, gure aburuz, Murrietaren inguruko interesa horren ondorio da, erresistentzia ikur bat baita eta, bestalde, hark adierazten dituen balio positiboetan oinarrituta eraiki zituzten nazio ezaugarriak.

Ibilbide honetan, baina, pertsonaiari buruzko zenbait ohar egin behar ditugu, eta baita ikurren ekonomian sartu zen modua azaldu ere. Haren izeneko korridoa ikertzeari ekin diogu eta, horri esker, ikerketa honetan azalduko dugu zergatik uste dugun Murrieta kultur erresistentziaren ikur bat dela, aztertuko dugu nola bihurtu zen ikur eta ezaugarrituko ditugu mexikar herriaren eta pertsonaia horren antzeko nolakotasunak, haien arteko enpatia sortu baitzuten.

Ondoren, lege eta justizia kontzeptuen inguruan hausnartuko dugu, dikotomia horretatik abiatuta jazo baitziren, hasiera batean, XIX. mendearen erdialdeko mexikar landa-herriaren identifikazio-prozesuak Murrieta pertsonaiarekin. Hain zuzen, horixe gertatu zen bake hitzarmena sinatu eta gero, gerra bukarazi zuen Guadalupe Hidalgo² itunaren zenbait artikulua urratu zirenean. Gure ustetan, identifikazioa (Murrieta protagonista den kultura-produktuen eskaera handia dela medio ziurta daiteke hori) zapalduen (mexikar landatarrak, kasu honetan) nahien ondorio da, mendekua nahi dutelako eta boteretsua azpiratu nahi dutelako, behintzat ikuspegi sinbolikotik ikusita.

Azkenik, korridoa izango dugu hizpide. Bertan bistakoa da indarkeriak indarkeria gehiago sortzen duela, zeren, estatubatuarrak hasiera batean mexikarrei emandako tratu txarra dela eta, pertsonaia hura agertzeko egoera sortu zuten. Ez dugu ahaztu behar, halaber, indarkeria hura bi mailatan adierazi zela: nazio mailan eta gizabanako mailan. Hau da, korridoa, batetik, Estatu Batuei, nazio gisa, leporatzen diete mexikar lurraldeez jabetu izana eta, bestetik, gizabanako estatubatuarrari leporatzen diete beste batzuen eskubideak ez errespetatzea handinahiak direlako. Ofentsa nazional hori gizabanako batek islatzen du, Joaquín Murrietak, umiliazioa pairatu eta gero maila bereko indarkeria (edo handiagoa) erabili zuenak. Horren eraginez, mexikarren eta beste talde gutxitu batzuen ordezkari bilakatu zen, mendekuaren eta aldarrikapenen bila. Korridoa gatazkaren erroa eta identitate-ezaugarrien eraikitzea aztertuko ditugu.

1. Nor zen Joaquín? Testuingurua eta zalantzako istorioa

Permítanme que les presente algunos de los más famosos caballeros del camino [salteadores], quienes tienen, sin duda alguna, tanto derecho de figurar en las páginas de la historia como los que se hacen famosos robando sin salirse de las reglas aceptadas por la sociedad. Bancroft, citado por Leal, Vida y aventuras del más célebre bandido sonoreño Joaquín Murrieta

OHARRAK

2 | Mexiko eta Estatu Batuen arteko gerraren inguruko gertakari historikoen eragin handia izan zuten bi herrialdeen etorkizunean. Konfrontazioa Estatu Batuen gogo espansionistarengatik jazo zen, Texasi batzea eskaini ziotenean. Gobernu mexikarrak, baina, ez zuen Texas errepublika edo estatu independentetzat hartzen, lurraldearen zati bat zen eta, ondorioz, gatazka hasi zen. Mexikoren garai horretako egoera ekonomikoa oso larria zen, eta bazekiten ezingo ziotela gerrari eutsi hain baliabide gutxi edo baliabiderik gabe, batez ere arerioa hain boteretsua izanda. Orduan hasi ziren bake negoziazioak, eta emaitza 1848ko otsailaren 2an sinatu zuten Guadalupe Hidalgo ituna izan zen. Itunaren zenbait alderdiri buruz mintzatu beharra dago. Artikulu bilduma bat da eta, bertan, Estatu Batuei ematen zaizkie boterea, zilegatasuna eta justizia-administrazioa mexikar lurralde ohian (gaur egungo estatu hauetan: Kalifornia, Arizona, New Mexiko, Utah, Nevada eta Colorado, Wyoming, Oklahoma eta Kansaseko zenbait eremu). Esan beharra dago VIII eta IX artikuluek ziotela Estatu Batuek mexikarren jabetgo-agiriak zilegitzat joko zituztela eta mexikarren eskubideak, herritar gisa, bermatuko zituztela. Estatutu horiek ez ziren errespetatu eta trantsizio garaia oso gogorra izan zen mexikarrentzat, euren etxean pairatu zuten arrazakeriatatik. Ituna urratzean, ez zituzten mexikarren eskubideak aintzat hartu, eta babesgabe geratu ziren, bere gain hartzen zituen legerik gabe eta errespetua exijitzeko nora jo gabe. Horrexegatik beragatik, beharbada ez zuten ontzat jotzen pertsona batek mendekua hartzea bere kabuz, baina justizia-egintza gisa ulertzen zuten.

OHARRAK

3 | Aipatu dugu jada lurraldeko kilometro batzuk bereganatu zituztela Estatu Batuek; haatik, Kaliforniari buruz ari gara soilik, bertan garatu eta indarberritu zelako Murrietaren istorioa.

4 | Ikus, besteak beste, Andrés Reséndez Fuentes, 1997; Roger McGrath, 2003; David Thelen, 1999.

5 | Kalifornia estatua aztertzen zuten historialariek diotenez, Joaquín izen ohikoa zen mexikarren artean XIX. mendearen erdialdean.

Guadalupe Hidalgo ituna adostu eta sinatu zutenean, Kalifornian³ geratu egin ziren desagerrarazi nahi zituzten mexikar kulturaren aztarnak, eta mundua eta bertako gauza oro ulertzeko ikuspegi erabat desberdina zutenek historiaren atal berri bat idatzi nahi izan zuten kultura horren gainean. Lurralde horiek, teoriarik, mexikarrenak izaten jarraitzen zuten, baina, noski, ez ziren lurralde mexikarrak. Hala, bertan geratzeko erabakia hartu zutenek kultura berri batera egokitu behar izan zuten, haien lurraldeetatik mugitu ez ziren arren⁴. Muga geografiko, politiko, ekonomiko, sozial eta kultural berria zehaztearen ondorioz, familia ugari banandu ziren eta mexikar zapalduen psikeak eta sentimenduak trauma handia pairatu zuten: «súbitamente “extranjerizados”, [viviendo] un proceso de colonización, sometidos a condiciones desventajosas, despojados de sus propiedades e inscritos en un régimen sociopolítico que los estereotipaba y discriminaba» (Valenzuela Arce, 2000: 28).

Ituna sinatu baino zenbait egun lehenago, Kaliforniako eremua estatubatuar militarren kontrolpean zegoelarik, urrea aurkitu zuten, eta horrela hasi zen urrearen sukarraren garaia. Mundu osoko gizon eta familia asko bertaratu ziren aberasteko asmoarekin. Estatubatuarrek lurralde hori bere egin eta handik gutxira, zerga bat sortu zuten urre-ateratzaile atzeritarrentzat, bertakoak babestearren. Egoera berrira ohitzeko garaia zen, eta nahasmendua zen nabarmen. Bi herrialde horien kodeak aurrez aurre zeuden garaiotan eta, nahiz eta bizilagunak izan edo, beharbada, horrexegatik beragatik, mexikarrek erresumin handia sentitzen zuten estatubatuarren handitasun jarrera ikusita. Horrezaz gain, legeak eta justizia ulertzeko erak desberdinak ziren, eta baita hizkuntzak ere. Hala, guztiz ulergarriak dira aldaketak eragindako zirrara, komunikazio eza eta eskubideak berreskuratzeko borroka. Bestalde, muga geografiko eta ukigarri hura lurraldean eta hizkuntzan identifika zitekeen erabat, baina ezin ukituzkoa zen, kultura, balio eta bizimoduaren aldetik.

Egoera horretan, hain justu, agertu zen Joaquín (edo bost Joaquín gehiago⁵). Izen horrekin, abizenik gabe, ospetsu izaten hasi zen, mexikar zaldi-lapur eta estatubatuar-hiltzaile bati buruzko berriak hedatzean. Nonahikotasunaren dohaina baleuka bezala, Joaquín aldi berean agertzen omen zen Kaliforniako hainbat herritako egunkarietan 1850 eta 1853 artean, eta gero eta nabariagoa zen haren presentzia, lurralde mexikar ohien jabe berrien ondasun eta bizitzak hondatzen zituelarik. Gobernuak, suminduta, *ranger* talde bat sortu zuen Joaquín atzeman zezan, eta hark, une horretan, bost abizen zituen: Botellier, Carrillo, Murrieta, Ocomorenia eta Valenzuela. Geroago, Love sarjentuak lepoa moztu zion Joaquín izeneko gizon bati, eta nekazari batzuei agindu zien hura Joaquín Murrieta bidelapur beldurgarria zela ziurta zezatela, abizen horrek laburbiltzen baitzituen estatubatuarren aurkako mexikarren

bidegabekeriak.

Lortu ditugun datu historikoen arabera, heroi-bidelapur bilakatu baino lehen, Joaquín Murrieta izeneko gizon bat existitu zen, Sonoran jaioa, Mexikon⁶, 1824 eta 1832 urteen artean. Emaztearekin batera Kaliforniara joan bide zen, anaiarekin elkartu eta errearen negozioan murgiltzera. Gizon prestu eta langileak ziren, baina estatubatuar batzuek eraso zituzten lur-sailetik alde egin zezaten. Joaquín jipoitu zuten eta, bere aurrean, anaia hil eta emaztea bortxatu zuten, hura ere zendu zenik. Ondorioz, Joaquínek zin egin zuen mendekua hartuko zuela bidean topatzen zuen estatubatuar ororen aurka. Gizon karismaduna ei zen eta, horregatik, antzeko arazoak zituzten beste batzuek jarraitu zuten eta, elkarrekin, lapurtu eta erail zuten. Horrekin batera, mexikarengan jakin-mina sortu zuten, eta baita estatubatuarren haserrea handitu ere. Orduan sortu zen haren hots anbigua: «bidelapur krudela» eta mexikarren mendekatzaila, edo beratarren eskubideak aldarrikatzen dituen «heroia», umiliarazten duten horien malezia agerian uzten dituen bitartean.

2. Beste «beste» baten hitzak

*My former good friend, I would rather
do anything in the world than kill you,
but if you betray me, I will certainly do it.*
John Rolling Ridge,
*Vida y aventuras del más célebre
bandido sonorese Joaquín Murrieta*

John Rolling Ridgek, edo Yellow Bird txerokieraz, *Vida y aventuras del más célebre bandido sonorese Joaquín Murrieta* biografia (batzuek eleberri gisa kontatutako biografiatzat jotzen dute) idatzi zuen 1854. urtean, eta Ireneo Pazek⁷ itzuli zuen espainolera 1902an. Biografia horrek, hain zuzen, Murrietaren elezaharra finkatu zuen.

Berez, Murrieta hil eta urtebete geroago argitaratu omen zuten biografia hura baina, indio txeroki baten lehen lan idatzizat jo zenez, ez zuen arrakasta handirik izan. Haatik, plagiatu eta zatika argitaratu zuten egunkari kaliforniar batean, eta orduan izan zuen goraldia. Ridgen adierazpenak gorabehera, askok ez zioten onartu testuaren jabetza. Modu horretan sortu ziren kopia eta itzulpen asko, eta pertsonaiaren nazionalitatea bera ere aldatu zuten⁸. Ridgek ondotxo ezagutzen zuen mexikarrak jasaten ari zirena: indio txeroki bat izanik, hark ere bi mundu horien arteko gatazkak pairatu zituen⁹. Arraza dela eta, mexikar asko mespretxatu zituzten beraien lurraldeetan, eta adierazgarria da indio txeroki batek halako mexikar baten istorioa kontatu izana. Jakina, jarrera hori etxean bertan jasandako desjabetzearen eta arrazakeriaren aurkako protesta gisa

OHARRAK

6 | Murrietaren biografia eta gertaeren inguruko adostasuna handi samarra da Luis Lealen dokumentazioaren arabera. Horren haritik, Ireneo Pazzen testuaren hitzaurrean, ezagutzen diren bertsioren ikerketa mamitsua aurkezten du Lealek.

7 | Aipatzekoa da Pazek ez duela bere burua itzultzaile gisa aurkezten, egile gisa baizik.

8 | Murrieta txiletarra zela ere esan zuten, baina korridoan argi dago gezurra dela.

9 | Estatubatuarrekin nazio txerokiaren lurraldeak negoziatu behar zituen ordezkari baten kide zen aita, eta haren kudeaketarekin ados ez zegoen beste indigenaburu batek hil zuen. Horren eraginez, hark eta familiak etxez aldatu behar izan zuten. Ridgen bizitzako beste atal garrantzitsu batek dioenez, zaldi batzuk ostu zizkioten behin eta, mendekua hartzeko, lapurra hil zuen. Alde egin behar izan zuen eta Kalifornian bukatu zuen. Ikus daitekeenez, idazle horren bizitzaren nondik-norakoak arrazoi nahiko dira txerokiaren eta mexikarren historiaren artean antzekotasunak gertatzeko eta, hala, identifikazio-prozesua ahalbidetzeko. Beharbada, gertatutakoa Murrietaren bizitzaren bitartez salatzean, justizia edo bi taldeek zuten justizia-zentzu pixka bat eskatzen zen.

uler daiteke, eta indioaren artikulua errebindikazio bikoitza osatzen du: estatubatuarrek aldarrikatutako askatasuna eta berdintasuna ezbaian jartzen duen eta exijitzen duen indioarena, baina beste baten bidez egin, mexikar baten bidez, hain zuzen, biak maila berean zapaldu baitzituzten.

Estrategia horretatik abiatuta, Murrieta mexikarren erresistentzia-ikur bihurtu zen, eta baita, zeharka bazen ere, beste zenbait talde gutxituren sinboloa ere, haien lurraldeetan zokoratu eta gaizki tratatu ostean. Estatubatuarrek Joaquín bidelapurtzat, alfertzat eta zikintzat jotzen zuten, gainerako mexikarrak bezala. Alabaina, mexikarrentzat: «no se le consideraba como bandido, sino como el defensor de una cultura que estaba a punto de perderse » (Paz, 1999: 28), txeroki nazioko indioen kultura galdu zen bezala.

3. Bi lege- eta justizia-sistemaren arteko gatazka

*Equality is but a word—
the Treaty of Hidalgo has been broken
and is but another threacherous promise.
My land is lost
and stolen,
my culture has been raped
Rodolfo «Corky» Gonzales,
Yo soy Joaquín, I Am Joaquín*

Lege eta justizia kontzeptuek lotura handia dute. Legea diskurtso bat da, eta horren xedea giza taldeak antolatzea da, diskurtso hori onartzen dutenen arteko harmonia bermatzeaz gainera. Legeak ordenatu eta sailkatu egiten du, eta, era berean, pertsonak babesten ditu eta justizia egin. Norbaitek sortu behar du legea eta, horren ondorioz, legeak jarrera zilegigarri eta onargarriak gertatzeko esparru legalak sortzen ditu, eta baita kodeak, arauak eta erregulazioak ere. Bourdieuk dioenez, «legal discourse is a creative speech which brings into existence that which it utters» (1991: 42). Aipatu beharrekoa iruditzen zaigu, bestalde, legeak ez diola aipatzen duen horri bakarrik bidea ematen, sortzen duenaren aurkakoari ere bai. Alde batetik, legepean dauden bideak ezartzen dira eta, bestetik, ustez legetik at dauden jarrerak zigortzeko erregulazio-mekanismoa eraikitzen da. Modu batera edo bestera, onartzen baldin bada onargarria den hori existitzen dela, orduan onartezina dena edo legetik at dagoena ere onartzen da. Hala ere, hori ez da justiziaren kasua, ez baita diskurtso sortua eta sortzailea. Hobe esanda, berdintasunari dagokion kontzeptu bat da eta, bertute kardinaletako bat izanik, nori berea ematen dio.

«Justizia» hitza legearen hiztegiaren barruan dago, baina ez da beti gauza bera, inolaz ere. Hots, pertsona bat justizia eske

dabilenean, ez du nahitaez legera jotzen. Egia da pertsona batek legera jo dezakeela justizia exijitzeko, baina beste aukera batzuk ere baditu. Esaterako, justizia jainkotierra eska dezake. Bestalde, norbaitek bere kabuz egin dezake justizia legera jo gabe, baina, hori eginez gero, legearen eragina jasan dezake, legeak berak epaitu eta kondenatu baitezake. Horregatik, galdera hau egiten diogu gure buruari: zer gertatzen zaio legearen aurrean Joaquín Murrieta bezalako pertsona bati, arazoak dauzkaten bi nazioen legeen erdierdian dagoenean? Are gehiago, zer gertatzen zaio ez dagoenean justizia ulertu eta erabiltzeko modu bakarra? Justizia forma askotan nabarmentzen da, ez lege ediktu baten bidez bakarrik. Praktikan, justizia adierazi eta gauzatu da herriko ahozko kode bati dagozkion beste mekanismo batzuen bitartez, eta kode horrek idatzizko justiziak baino garrantzi handiagoa dauka, are gehiago aztertzen ari garen kasu honetan. Aipatu bezala, dokumentu bateko hitz baten boterea dela medio, Kalifornian bizi ziren mexikarrak behartu zituzten onartu eta ezagutzen ez zuten lege-sistema batera egokitzera. Ondorioz, justizia-, balio- eta nazioen arteko kodeen talka topatzen dugu, azken finean da «la oralidad tradicional, esa que supone la ausencia del soporte escriturario, o al menos su carencia de relevancia y efectividad cultural en una sociedad dada, [que] está irremediabilmente asociada al “campo”, a lo rural, a localidades relativamente aisladas del tráfico civilizatorio» (Pacheco, 1995: 63), jakinduria arrotz eta hura ezagutzen ez duen lege kanpotar batekin borrokan. Aztertzen ari garen kultura-produktuak dira, hain zuzen, bi kode horien arteko talkaren ondorioetako bat.

Iparraldeko bizilagunen aurka bortitz bihurtu zen gizasemea zen Joaquín Murrietari buruzko bi ikuspuntu daude. Alde batetik, lege estatubatuar ofizialarentzat desagerrarazi beharreko maltzurra da, ez dituelako jarraitzen edo urratzen dituelako ezarritako parametroak. Baina, beste alde batetik, nekazari mexikarrentzat ahozko kulturaren kodeak jarraitzen dituen gizon bat da, ontasun eta krudeltasun muturren artean badabil ere. Hau da, iraintzen dutenean, mendekua hartzen du, bere kabuz egiten du justizia. Hortaz, mexikar herriak eta Murrietak ahozko kode bera zuten, eta baita beste nazioaren aldetiko umiliazio bera jaso ere. Hala gertatu zen identifikazio-prozesua, eta Murrieta ondasun sinboliko bilakatu zen, mota horretako zenbait produktutan ikus daitekeen kultura-erresistentziaren ikono. Aztertutako korridoan, mexikar identitatearen bertuteak finkatu eta handietsi egiten dira, «orgullosa americano» delakoarekin aurrez aurre (Corrido de Joaquín Murrieta).

Bourdieuaren aburuz, ondasun sinboliko hori honetan datza: «recognition, institutionalized or not, that [agents] receive from a group» (1991: 72). Ildo horretatik, uste dugu, ondasun sinbolikoa den aldetik, Joaquín Murrieta pertsonaiaren boterearen eta itzalaren oinarria talde baten edo nazio baten identifikazioa dela¹⁰. Aurrekoaz

OHARRAK

10 | Gogoratu beharra dago txikano mugimenduaren kultura-produktuen pertsonaia nabarmenenetako bat Joaquín Murrieta bera zela, berriro garrantzitsu bihurtu baitzen igaro den mendearen 60ko hamarkadan, Rodolfo «Corky» Gonzalesek *Yo soy Joaquín / I am Joaquín* poema argitaratu zuenean. Hauxe ikus daiteke testuan: irakurleei agintzen zaie Guadalupe Hidalgo ituna haustean arbaso mexikarrek pairatu zuten umiliazioa gogoratzea, estatubatuarren nagusitasun ekonomikoa eta kultura-inposaketa salatu eta gaitzesten da, bitariko kultura eta identitateak onartu eta errespetatu behar direla ziurtatzen da eta eskubide zibilen aldarrikapena eskatzen da. Estatubatuarrek mexikarrei eragindako arrazakeria eta gehiegikeriak ondotoxoa azaltzen ditu transkribatutako pasarte honek: «I lengthen the line at the welfare door/ And fill the jails with crime./ These then are the rewards/ This society has/ For sons of chiefs/ And kings/ And bloody revolutionists./ Who gave a foreign people/ All their skills and ingenuity/ To pave the way with brains and blood/ For those hordes of gold-starved strangers./ Who/ Changed our language/ And plagiarized our deeds/ As feats of valor/ Of their own./ They frowned upon our way of life/ and took what they could use./ Our art, our literature, our music, they ignored—/ so they left the real things of value/ and grabbed at their own destruction/ by their greed and avarice./ They overlooked that cleansing fountain of/ nature and brotherhood/ which is Joaquín» (latinamericanstudies.org/latinos/Joaquin.htm).

gain, kultura-erresistentzia prozesuaren osagaietako bat da, eta kide izatearen zentzua irmotu egiten du, hauetako bat bezala jokatzeko baitu: «construcciones colectivas de sentido que se apoyan en elementos simbólicos definitorios de la identidad grupal y funcionan como marcas que refuerzan la definición de los límites colectivos de adscripción» (Valenzuela Arce, 2000: 132).

4. Korridoa

Kantatzen den poema bat da korridoa eta, hasieran, komunikatzeko bide gisa erabiltzen zuten. Forma sinpleak zituenez eta laburra zenez, korrido-kantariaren melodian eta gitarran bidaiatzen zuen herririk herri. Hasierako istorioak kontinente zaharrari buruzkoak ziren eta, geroago, egitura eta edukia eraldatu ziren inguruko berriak eta gertaerak zabaltzeko. Independentzia gerra eta mexikar iraultza bitartean korridoa indarberritu zen, eta, gainera, iraultzan zehar oso garrantzitsua izan zen horixe izan zelako Porfirio Díazen aurkako aurrerabideei buruzko berriak hedatzeko modua. Gehienak eskolagabeak izanik eta Estatuak egunkariak eta beste hedabide batzuk kontrolatu, zentsuratu eta zigortzen zituenez, hitzak, berriro ere, herrialdeko bazter guztietatik bidaiatzen zuen eta gertakariak kontatzen zituen.

Korridoaren bitartez, mexikarrek aberria goraiatzeko dute, aldarrikatzeko irrika adierazten dute eta agerian uzten dituzte kuraia, adorea, ausardia.

It includes the Mexican's spirit of bravado, his exaggerated manliness or «machismo,» the supreme self-confidence in himself and his own ways [...]. It is as an expression of Mexican nationalism that the Mexican *corrido* is distinctive [...]. And while its attitudes are most typical of the Mexican Revolution, when all things foreign, specially all things North American, were looked upon with suspicion and everything Mexican was extolled, the Mexican sense of nationality did not spring overnight with Madero's taking of Ciudad Juárez. It was stirred into life by the war with the United States and the French invasion and developed slowly but steadily during the thirty years of Porfirio Díaz's rule, coming into flower with the Revolution. The Mexican *corrido* tradition, an expression of this sense of nationality, has much the same history (Paredes, 1963: 233).

Ikusi dugunez, arerioari kontra egiteak antolatzekeo beharra sortzen du eta horrek, aldi berean, bateratzea eta identifikazioa suspertzen ditu, haien guztien ezaugarriak eta zapaltzailearen desberdintasunak aintzat hartuta. Kultura-produktuak dira horixe bera adierazteko, hedatzeko eta sendotzeko bide bat.

Joaquín Murrietari abesten zaion korridoak mexikarren balio eta bertuteak azpimarratzen ditu, eta horiek beraiek dira mexikarrak

eta iparraldeko auzokoak banatzen dituzten ezaugarriak. Mexikarra harekin identifikatzen da, lege iparramerikarretik at eta estatubatuarren gehiegikerien aurka. Elkar ulertzeko prozesua herriaren eta pertsonaia anbiguo horien artean ezarri ohi da; Hallek dioenez, eraikitzen da «on the back of a recognition of some common origin or shared characteristics with another person or group, or with an ideal, and with the natural closure of solidarity and allegiance established on this foundation» (1996: 2).

Prozesua, baina, bi norabidetan eta bi ikuspegi desberdinetatik gertatzen da. Batetik, garai batean pertsonaia horrekin identifikatu ziren pertsonak daude eta, bestetik, ahozko edo idatzizko literatura eta ikusizko testuen bidez, komunitateek kontsumitzen dituzten produktuetan, Murrieta bezalako heroi-bidelapurren presentzia iraunarazi duten egileak daude. Pertsonak identifikatzen diren bitartean, kultura-sortzaileek asmatzen dute

a fantasy of incorporation. Identification is, then, a process of articulation, a suturing, an over-determination not a subsumption [...]. Like all signifying practices [...] it entails discursive work, the binding and marking of symbolic boundaries, the production of «frontier effects». It requires what is left outside, its constitutive outside, to consolidate the process (Hall, 1996: 2-3).

Segidan aztertuko dugu nola sortzen diren mexikarren eta beste talde gutxitu eta zapalduen identitate-lotura horiek Joaquín Murrietaren irudiarekin¹¹.

5. Joaquín Murrietaren korridoa

Joaquín Murrietaren korridoaren zenbait bertsio daude; halere, ikerketa akademikoetan jaso zen zaharrena erabili dugu, Sánchez Linares anaiek abestu zutena, 1934koa¹². Egiatan, interpretazioen artean egiaztatu diren aldaketak txikiak dira, eta ez dute eraginik testuaren muinean eta edukian.

OHARRAK

11 | Joaquín Murrietaren inguruko ikerketa-bide nagusiak oinarrituta daude, batetik, pertsonaia errearen ibilbidea zehazten saiatzen diren azterlanetan eta, bestetik, Ridgek, 1854an, Murrietari buruzko biografia (edo eleberri gisa kontatutako biografia) plazaratu ostean egin ziren kopia eta itzulpenen azterketetan. Sakondu nahi izanez gero, ikus Luis Lealen sarrera Ireneo Pazen *Vida y aventuras del célebre bandido sonorense Joaquín Murrieta, sus grandes proezas en California* lanean. Testu horretan bertan, Lealek dio arraroa iruditzen zaiola Joaquín Murrietaren korridoa eskaini zaion arreta txikia, batez ere aipatutako puntuei buruz dagoen bibliografia zabala ikusita. Horren harira, Lealen aburuz, hori gerta daiteke Simmons bezalako kritiko askok uste dutelako abesti bat dela, ez korrido bat. Izan ere, Murrietaren korridoiari buruz aurkitu ditugun ikerlanak korridoaren kalitatea frogatzeaz arduratzen dira gehiago, ez hainbeste edukiaren analisiaz.

12 | Luis Lealek (1995) aurkeztutako bertsioaren testu-transkripzioa egin dugu.

<p>1 Yo no soy americano pero comprendo el inglés. Yo lo aprendí con mi hermano al derecho y al revés. A cualquier americano lo hago temblar a mis pies.</p> <p>2 Cuando apenas era un niño huérfano a mí me dejaron. Nadie me hizo ni un cariño, a mi hermano lo mataron, y a mi esposa Carmelita, cobardes la asesinaron.</p> <p>3 Yo me vine de Hermosillo en busca de oro y riqueza. Al indio pobre y sencillo lo defendí con fiereza. Y a buen precio los sherifes pagaban por mi cabeza.</p> <p>4 A los ricos avarientos, yo les quité su dinero. Con los humildes y pobres yo me quité mi sombrero. Ay, que leyes tan injustas fue llamarme bandolero.</p> <p>5 A Murrieta no le gusta, lo que hace no es desmentir. Vengo a vengar a mi esposa, y lo vuelvo a repetir, Carmelita tan hermosa, cómo la hicieron sufrir.</p> <p>6 Por cantinas me metí, castigando americanos. «Tú serás el capitán que mataste a mi hermano. Lo agarraste indefenso,</p>	<p>7 Mi carrera comenzó por una escena terrible. Cuando llegué a setecientos ya mi nombre era temible. Cuando llegué a mil doscientos ya mi nombre era terrible.</p> <p>8 Yo soy aquel que domina hasta leones africanos. Por eso salgo al camino a matar americanos. Ya no es otro mi destino ¡con cuidado, parroquianos!</p> <p>9 Las pistolas y las dagas son juguetes para mí. Balazos y puñaladas, carcajadas para mí. Ahora con medias cortadas ya se asustan por aquí.</p> <p>10 No soy chileno ni extraño en este suelo que piso. De México es California, porque Dios así lo quiso. Y en mi sarape cosida traigo mi fe de bautismo.</p> <p>11 Qué bonito es California con sus calles alineadas, donde paseaba Murrieta con su tropa bien formada, con su pistola repleta, y su montura plateada.</p> <p>12 Me he paseado en California por el año del cincuenta, Con mi montura plateada, y mi pistola repleta, Yo soy ese mexicano</p>
---	---

Aipatu bezala, Joaquín Murrietaren korridoak ez du zerikusirik korridoaren eskema formal tradizionalekin. Esan beharra dago narrazio osoa lehenengo pertsonan egin dela, bosgarren ahapaldiaren lehenengo bertsoa eta hamaikagarren ahapaldia

izan ezik. Hasiera-hasieran, pertsonaia identifikatzen da, eta, xede horretarako, geroago arerio gisa agertuko den horren aurkakotzat jotzen du bere burua. Esaten digu bera ez dela amerikarra, baina horien hizkuntza ulertzen duela eta ezin hobeki hitz egiten duela. Ondorioz, amerikarrari izua komunika eta eragin diezaioke. Aurrerago bere haurtzaroko zenbait pasarte azaltzen ditu. Alabaina, garrantzitsuena ematen duen azalpena da: zergatik diren amerikarrak bere mendekuaren helburua.

Estatubatuar «harro» batzuek emaztea ohoregabetu eta anaia hil zutenez, hark erabaki zuen ohorea berreskuratu behar zuela nazionalitate horretako ahalik eta pertsona gehien erailez. Erantzuki bat egiten du: «Ay, qué leyes tan injustas/ fue llamarme bandolero». Berriro ere legea ulertzeko bi modu horiek arazo bat sortzen dute: zergatik bidelapur deitu bere jokaeraren nondik-norakoak kontuan hartu gabe? Bere ustetan, umiliazioa jasanarazi dion hori zigortzen du, eta baita haren herri osoa ere, arrazoirik gabeko indarkeria erabil eta lurraldeak bereganatu izanagatik. Gogoratu beharra dago kantuan justizia edo aginte jainkotiar batera jotzen duela hau dioenean: «De México es California,/ porque Dios así lo quiso».

Korrido osoan zehar, behartsuekin onbera dela aipatzeaz gain, babesgabetuak defendatzeko prestutasuna eta aberats zekenen aurrean azaltzen duen gogortasuna ere agerian uzten ditu. Arrandiaz erakusten du gizontasuna, ez baitu beldurrik, basapiztiak mendean ditu eta, hain da adoretua, non aurre egiten dioten armak barregarriak gertatzen diren. Modu horretan, mexikarra izatearen bertuteak handiesten ditu eta estatubatuarren irudia osatzen du. Irudi hori, noski, hark ordezkatzeko duen horren guztiaren aurkakoa da.

Estatubatuarrekin duen indarkeriazko jokaera justifikatu eta gainerakoentzat bertute eredu dela eta oso itxura oneko gizona dela argi utzi ostean, kantua alderantzizko mugimendu batekin bukatzen du, nazionalitatea eta izena ozenki esanez. Bi osagaiak, izena eta etorki herrialdea, adierazteko hurrenkerak iradokitzen du bata bestearen elementu metonimikoa dela, bata bestearen ondoan dago eta. Hortaz, «ese mexicano/ de nombre Joaquín Murrieta» izateak esan nahiko luke edozein mexikarrek bere heroia ezaugarri berak dituela eta, guretzat, Murrietaren ekintzen bidez, ohoregabetzen duten mexikar orok mendekua hartzen duela ere bai.

Mexikarrak kanpotar sentitzen ziren euren lurraldean, eta babesa ematen zieten legerik gabe zeudelarik (euren legeak ez zituzten babesten, are gutxiago lege atzerritarrek), ordaina hartzen zuten kantuen bidez, zeren, Murrietak lapurtu eta erailtzen badu ere, zapaltzailearen aurka egiten du.

Nekazariak ez zuten baliabiderik euren burua defendatzeko desberdintasun egoera horretan eta, hori dela bide, guk proposatzen dugu Murrietaren pertsonaia ikuspegi honetatik ulertzea: haren bitartez, mexikarrek erresistentzia adierazten dute, justizia egiten duelako zapaltzailearen aurrean. Norbanako horrekin bat egiten dute onartzen eta ezagutzen ez duten lege inposatu batetik at eta, ondorioz, nekazariak duintasuna berreskuratzen dute eta mendekua hartzeko gogoia ahalbidetzen da, maila sinbolikoan behintzat. Ez diogu, baina, mexikarrek prozesu hori ohartuki eta nahita gauzatu zutenik, denek ez zutelako borondatez bidelapurra laguntzen. Hobe esanda, askatasun eta justiziaren ideia zen, nagusirik eta zapaltzerik gabe bizitzekoarena; ideia hori, hain justu, Murrietaren irudian laburbiltzen zen eta nekazariak suharki begiesten zuten.

Berriro ere, kontua ez da ekintza lazgarriak kondenatzen ez zituztenik, baizik eta Joaquín Murrietaren adorea miresten zutela bere ohorea eta familiarena berreskuratzerantz ausartu zelako. Are gehiago, aberkideen ohorea ere bai, eta, Yellow Birden kasuan ikusi bezala, baita mexikarrek bizitako egoera antzekoak pairatu zituzten beste talde gutxitu batzuen ere, haiek ere lekuz kanpo sentitzen ziren eta. Raymund Word doktoreak hau zioen *Mariana la Loca* (1970) liburuan:

[A]mong these descendants of the old Spanish families he [Murrieta] was something of a hero, and was admired for his bravery in revenging himself on his yankee oppressors. These californios might not, in theory, approve of his cattle theft, and still less did they approve of the murders that he and his gang committed, but they were generally willing to provide a fresh mount for any Mexican who seemed to be in a hurry to avoid his *gringo* pursuers without asking too many questions (en Leal, 1995: 29).

Korridoan, Joaquín Murrietaren pertsonaia mendekatzaile eta justiziazale zorrotz gisa agertzen da eta, kantuaren bidez, ohorea defendatzen duten mexikarren ausardia eta kemena nabarmentzen dute. Publikoa oraindik Murrietarena bezalako istorioekin grinatzea eta horien produkzio gero eta handiagoak eskatzea memoria selektiboko prozesu baten bitartez azal daiteke, Slattak egin bezala (1987). Horretarako, Langersen esanetan oinarritzen da, horrek uste baitzuen errealitate historikoa eta bidelapurrei buruzko kontakizunetan islatzen dena oso urrun daudela baina, hala eta guztiz ere, landatarrek heroi mendekatzaile gisa dituzte gogoan. Ildo horretatik, Hallen hitzak ere argigarriagoak dira: «identification is grounded in fantasy, in projection and idealization. Its objective is as likely to be the one that is hated as the one that is adored» (1996: 3). Joaquín Murrietarena oso kasu korapilatsu eta adierazgarria da, fikzio identitarioak aurkako bi norabidetan jazotzen direlako. Alde batetik, mexikarrentzat, pertsonaia heroi mendekatzaile bihurtzen da, eta mexikarren bertuteen ordezkotzat ezin hobea da haren ontasun eta apaltasunari esker, eta, noski, nekazariei, txiroei, langileei eta

gutxituei dien begiruneari esker. Bestalde, estatubatuarentzat, bidelapur anker eta odolzalea da; lanik ez egiteko lapurtzen eta erailtzen duen gizona, mexikarren estereotipoa iraunarazten du.

Joaquín Murrietak, heroia mexikarrentzat, bidelapurra estatubatuarentzat, lurraldeen desjabetze-prozesuan galdutako duintasunaitzultzen die aberkideei hein batean, haren egitandiei buruz abestuz. Ez da ezusteko bat Joaquín Murrietaren irudia aukeratu eta jarri izana txikanoen imaginarioa osatzen duten pertsonaia heroikoen panteoian, Rodolfo «Corky» Gonzalesen *I am Joaquín* (1967) poemak, esaterako, ziurtatzen duen eran. Txikanoen aburuz, Murrieta da Estatu Batuen kulturaren aurreratze eta inposaketaren aurkako erresistentzia-ikurra.

6. Azken akordeak

Gure ustetan, hein batean poetek heroi-bidelapurrei buruzko istorioak sortu, abestu eta zabaltzen dituzte, jendeak, oro har, gogoko dituelako. Miresmena gertatzen da Murrieta bere kabuz mendekua hartzera ausartzen delako eta, hori eginez, bere bizimodu tradizionalaren kodeak jarraitzen dituelako. Bizimodu hori, baina, kultura berriak mehatxatu eta ordezkatzeko du, gutxiago edo basatia balitz bezala tratatu eta beste lege bati menderatu behar izateaz gain. Agintarien ustez kriminal bat bazen ere, lege kanpotar «horretatik» at egotea da ausarta nekazariarentzat. Haren bitartez, pertsonaia eta errepresentazioaren bitartez, landatarrek ordaina hartzen dute sinbolikoki justiziaren aurrean.

Ikerketa honetan agerian utzi nahi izan ditugu Murrieta bezalako pertsonaia bortitzetan laburbiltzen den ondasun sinbolikoaren kalitatea eta zama. Pertsonaia horiek ahozko formetan irudikatzen dira, eta korridoa horren adibide da. Kontakizunetan agertzen direnak pertsonaia errealetan oinarritzen dira, eta horietatik abiatuta sortzen diren identifikazio-prozesuak, errekonozimendu- eta erreproduzio-ziklo bat dira, kultura-produktoreak, produktuek eta kontsumitzaileek osatzen dutelarik. Ziklo hura pertsonaiaren botere sinbolikoa da, eta, pertsonaia horren bidez, mexikarrek talde-identitatea definitzen dute, indar, botere eta kultura kanpotarrarekin aurrez aurre.

Kultura-produktuak eta pertsonaiek talde baten errekonozimendua, ikusle batzuen xarma eta isuria alegia, jasotzen ez badute, ezinezkoa da ikurren ekonomiaren, imaginario nazionalen barnean egotea.

Alabaina, Joaquín Murrietaren kasuan beste osagai bat dago: itzuliko ez den bizimodu bat. Zehatzago esateko, kultura berri eta arrotz bat kokatzen den espazio fisiko baten galera. Halere,

erresistentzia-sentimendua sinbolikoki adierazten da pertsonaia bat asmatuz eta hari abestuz, gehienbat eskubide-urratzaileei ondorioak jasanarazten dizkien gizontzat agertzen bada munduaren aurrean. Hala, mexikarrek heroitzat jotzen duten horri kantatzen diote, identitate nazionala indartzen baitu Estatu Batuen indarkeriazko inposaketa ikusita. Zentzu horretan, Joaquín Murrietaren korridoak, urraketa nabarien aurrean, erresistentzia sinbolikoaren aktore, lekuko eta froga gisa funtzionatzen du, eta, baita ere, pertsonaia baten sortzaile gisa, zeinarekin identitate-ezaugarriak irmotzen dituzten errekonozimendu-prozesuak ezartzen diren.

Bibliografía

- BIRKBECK, C. (1991): «Latin American Banditry as Peasant Resistance: A Dead-End Trail?», *Latin American Research Review*, vol. XXVI, nº 1, 156-160.
- BOURDIEU, P. (1993): *The Field of Cultural Production*, UK: Columbia University Press.
- BOURDIEU, P. y THOMPSON, J.B. (1991): *Language and Symbolic Power*, Cambridge, Mass.: Harvard University Press.
- BOURDIEU, P. y WACQUANT, L. (1992): *An Invitation to Reflexive Sociology*, Chicago: University of Chicago Press.
- FLORES, R. R. (1992): «The Corrido and the Emergence of Texas-Mexican Social Identity», *The Journal of American Folklore*, vol. CV, nº 416, 166-182.
- FUENTES RESÉNDEZ, A. (1997): «Guerra e Identidad Nacional», *Historia Mexicana*, vol. XLVII, nº 2, 411-439.
- GONZALES, R. *Corky* (1967): *I Am Joaquín*, Denver, Colo.: Crusade for Justice.
- GUTMANN, M. C. (1993): «Rituals of Resistance: A Critique of the Theory of Everyday Forms of Resistance», *Latin American Perspectives*, vol. XX, nº 2, 74-92.
- HALL, S. (1996): «Introduction: Who Needs "Identity"?», Hall, S. y Du Gay, P. (eds.), *Questions of Cultural Identity*, London: Sage Publications, 1-17.
- HANSEN, T. L. (1959): «Corridos in Southern California [Concluded]», *Western Folklore*, vol. XVIII, nº 4, 295-315.
- HOBSBAWM, E. J. (1981): *Bandits*, New York: Pantheon Books.
- JOSEPH, G. M. (1990): «On the Trail of Latin American Bandits: A Reexamination of Peasant Resistance», *Latin American Research Review*, vol. XXV, nº 3, 7-53.
- LEAL, L. (1995): «El Corrido de Joaquín Murrieta: origen y difusión», *Mexican Studies / Estudios Mexicanos*, vol. XI, nº 1, 1-23.
- LIMÓN, J. E. (1992): *Mexican Ballads, Chicano Poems, History and Influence in Mexican-American Social Poetry*, Berkeley: University of California Press.
- McDOWELL, J. H. (1972): «The Mexican Corrido: Formula and Theme in a Ballad Tradition», *The Journal of American Folklore*, vol. LXXXV, nº 337, 205-220.
- McGRATH, R. D. (2003): «A Violent Birth: Disorder, Crime, and Law Enforcement, 1849-1890», *California History*, vol. LXXXI, nº 3-4, 27-73.
- MENDOZA, V. T. (2004): *El Corrido Mexicano*, México: Fondo De Cultura Económica USA.
- MONSIVAIS, C. (1978): «Notas sobre cultura popular en México», *Latin American Perspectives*, vol. V, nº 1, 98-118.
- ORTIZ VIDALES, S. (1949): *Los bandidos en la literatura mexicana*, México: Editorial Tehutle.
- PACHECO, C. (1995): «Sobre la construcción de lo rural y lo oral en la literatura hispanoamericana», *Revista de Crítica Literaria Latinoamericana*, vol. XXI, nº 42, 57-71.
- PAREDES, A. (1958): «*With His Pistol in His Hand*»: *A Border Ballad and its Hero*, Austin: University of Texas Press.
- PAREDES, A. (1963): «The Ancestry of Mexico's Corridos: A Matter of Definitions», *The Journal of American Folklore*, vol. LXXVI, nº 301, 231-235.
- PAZ, I. y LEAL, L. (1999): *Vida y aventuras del más célebre bandido sonoreño Joaquín Murrieta: sus grandes proezas en California*, Houston: Arte Público Press.
- RAMÍREZ-BARRADAS, H. F. (2000): «La transformación de un héroe de corrido a través del tiempo», *Hispania*, vol. LXXXIII, nº 2, 189-197.
- SIMMONS, M. E. (1963): «The Ancestry of Mexico's Corridos», *The Journal of American Folklore*, vol. LXXVI, nº 299, 1-15.
- SLATTA, R. W. (ed.) (1987): *Bandidos : The Varieties of Latin American Banditry*, New York: Greenwood Press.

- THELEN, D. (1999): «Rethinking History and the Nation-State: Mexico and the United States», *The Journal of American History*, vol. LXXXVI, nº 2, 438-452.
- VANDERWOOD, P. J. (1970): «Genesis of the Rurales: Mexico's Early Struggle for Public Security», *The Hispanic American Historical Review*, vol. L, nº 2, 323-44.
- VANDERWOOD, P. J. (1972): «Los Rurales: producto de una necesidad social», *Historia Mexicana*, vol. XXII, nº 1, 34-51.
- VANDERWOOD, P. J. (1984): «El bandidaje en el siglo XIX: una forma de subsistir», *Historia Mexicana*, vol. XXXIV, nº 1, 41-75.
- VALENZUELA ARCE, J. M. (2000): «Al otro lado de la línea: representaciones socioculturales en las narrativas sobre la frontera México-Estados Unidos», *Revista Mexicana de Sociología*, vol. LVII, nº 2, 125-149.